

# BERRIGARA

32. zenbakia

JARDUN Elkartea, Bergara

1996, apirilak 26

**Dena  
daukazu  
liburuan**

## Autoberezi

ANTIGUA AUZOA  
ANTZUOLA

**FIAT**

*Alfa Romeo* 

1995ko Urteko kotxea



1996ko Urteko kotxeak



# OPTICOS ASOCIADOSek PACK GAZTE

BERRIA ESKAINTZEN DIZU

- 6 HILABETERAKO ERABILI ETA BOTATZEKO UKIPEN LENTEAK.
- 355 mililitroko RENU SOLUZIO BAKARREKO BI POTE.
- LENTILLENZAKO KUTXATXOA.

17.000 pzt.



BAUSCH & LOMB



1996ko MAIATZAREN 31 ARTEKO ESKAINTZA.

# P. Manso

Irizar, 2 BERGARA

ERABILTZEN DITUZUN OHIKO  
UKIPEN LENTEAK

14.000 PZTA.KO (\*)

# BAUSCH & LOMB

BIGUNENGATIK ALDATUKO  
DIZKIZUGU.  
ETA GAINERA, EGUNERO ERABI  
ETA BOTATZEKO

New Day

LENTILLAK ERREGALATUKO  
DIZKIZUGU PROBA DITZAZUN

\* GALDETU GRADUAZIOAK

**Argitaratzailea:**

JARDUN Elkarte.

**Zuzendaria:**

Eneko Azkarate

**Erredakzioa:**

Eduardo Mendibil

Mikel Elkoroberezibar

Itziar Larrañaga

**Maketazioa:**

Eneko Azkarate

**Publizitatea:**

Alex Azkarate

**Harpidetzak:**

Sorka Elortza

**Festuen zuzenketak:**

Esteban Plazaola

Mariipi Laskurain

Alex Labaien

**Erredakzio kontseilua:**

Sorka Elortza

Miguel Angel Elkoroberezibar

Alex Labaien

**Colaboratzaileak:**

Imaia Alberdi

Dena Fernandez

**Tomikiak:**

Aitor Rodriguez

Sorka Ortega & Jon Alvarez

Alex Ugalde

Itziar Azkarate

**lanaketa:**

Antxangorri taldea

**Irada:**

1000 ale.

**primategia:**

bertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

**copyright:**

BERRIGARA

**lege gordailua:**

850/91

**ISSN:**

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako irazpenen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du


Z E B E R R I D A ?

## ALVARO ESPARZA Ongizateko zinegotzia

- Nola daude Bergaran eguneko zentroa zabaltzeko negoziatioak?

- Oraingoz gauza guzti esan daiteke. Diputazioako ordezkariekin bi aldiz bildu izan gara baina momentuz negoziatioak geldi daude. Maria Jesus Aranburu diputatuordeak oraindik eguneko zentroen Gipuzkoako mapa egiteko dagoela adierazi zigun eta beraz oraingoz itxaron egin behar... Hala ere legealdi honetan Bergaran horrelako zentro bat zabaltzeko asmoa daukagu. Dena den, ez nuke nahi legealdi amaierara arte itxoin behar izatea eta datorren urterako martxan egongo dela espero dut.

Bestalde, oraindik eguneko zentro hori non



kokatu erabakitzea falta da.

- Eguneko zentroan Alzheimer gaisoak bakarrik jasoko dira?

- Ikusi egin beharko da. Momentuz Bergaran Alzheimer gaisoen familiarrek eguneko zentroa jartzea eskatu dute eta 7 bat kasu ezagutzen dira. Elgeta eta Antzuolarekin batera 12 kasu egon daitezke.

**"Eguneko zentroa datorren urtean martxan egongo dela espero dut"**

I T U R R I O N E T I K

### Arans-Giren XXV. urteurrena ospatuko da maiatzaren 19an

Arans-Gi Gorren Eskolaren XXV. urteurrena ospatuko da datorren maiatzaren 19an. Eguerdiko mezaren ondoren herri bazkaria izango da Udal Biltegian.

Bertan Arans-Giko sortzaile, irakasle eta ikasle izandako guztiak biltzeko asmoa dago. Bazkalostean, besteak beste, Jose Antonio Agirrebeña Gipuzkoako Arans-Giko presidentea izandakoa eta Edurne Telleria eta Begoña Aperribai irakasleak omenduko dituzte. Arans-Giko arduradunek adierazi digutenez, bazkarian zehar beste sorpresaren bat ere izango da. Aurretik, maiatzaren 10ean, Arans-Gin egiten den lana ezagutzeko ate irekiko ihardunaldia izango da.

E S A N  
D U T E

"Gaztetatik prestatzen hasi beharra dago, azken finean informatika asignatura bat gehiago bihurtu baita gure gizartean. Umeek gauza on bat dute, edozer gauza ikasteko irekita daudela eta horrelako makinei beldurrik ez dietela. Hori aprobetxatuz eta euren geroari begira, ahalegin guztia egin beharko genuke gai honetan. Etorbizunean erreztasun haundiagoarekin lortuko dute informatikarekin bat egitea"

**ARANTZAZU UNANUE**

JAKIN informatika akademiakoa ELGOIBARREN

"Oso pozik nago eta ez da gutxiagorako. Bi astetan Castellonen eta Arraten irabaztea lortu dute eta oso ondo datorkit Europako txapeketari begira"

**AITOR ZABALETA**

Kotxe gidaria EL DIARIO VASCO

**JUMANJI**

Ostirala: 22:30.

Larunbata: 17:00, 19:30.

Igandea: 17:00.

Astelehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).

**LEAVING LAS VEGAS**

Larunbata: 22:30.

Igandea: 19:30, 22:15.

**JOHNNY GUITAR**

Ostirala (maiatzak 3): 20:00.

**Zinea**

▼▼ Izugarrizko efektu bereziak dituen filme honetan **Robin Williams** (*El rey pescador*, *Peter Pan*) aktorea dugu protagonista nagusia. 12 urterekin, **Alan** gazteak *Jumanji* izeneko jokoa ezagutuko du eta gauza harrigarriak gertatuko dira. 26 urte beranduago beste neska-mutiko batzuk *Jumanji*rekin jolasean hasi eta **Alan** mundu arriskutsu horretatik askatu ahal izango dute...

▼▼ **Nicolas Cage** aktoreak aurtengo Oscarra irabazi du filme honetan egindako lanari esker. Las Vegasen girotuta, **Nicolas Cage** ia dena galdu duen alkoholiko baten papera lantzen du. *Sera* prostitutak (**Elisabeth Shue**) *Ben* (**Cage**) bere lagunak aukeratu duen autodestruktzio bidean lagunduko dio. **Mike Figgis** zuzendariaren (*Lunes tormentoso*) filmea.

▼▼ Forum Cinematographe taldeak maiatzerako iragarritako emanaldian, **Nicholas Ray** zuzendari ezagunak 1954. urtean eginiko filmea ikusi ahal izango da. Dударik gabe, *western* jeneroko filmerik ezagunenetakoa dugu haxe. **Sterling Hayden** eta **Joan Crawford** aktoreak erreparto buruan eta musika benetan apagarria.

**Deiak**

▼ **1963an** jaiotako bazkaria maiatzaren 11n. Izen-ematea: Ariznoa, Kortazar eta Urratsen.

▼ **Txilintxa** Mariaren Lagundeko abesbatzaren emanaldia Eskoriatzako San Viator elizan bihar larunbata 8etan.

▼ **Musika Eskola**ko Metalezko taldearen eta Akordeoi Orkestraren kontzertua gaur 8etan Usurbilgo Parrokian.

▼ **Musika Eskola**ko Haur abesbatza bihar 6etan Usurbilen.

▼ **Zinea.** "*Homicidio en primer grado*" maiatzaren 1ean Novegadesen 17:00, 19:30 eta 22:15etan.

▼ **Dantzari Eguna** igandean Eskoriatzan.

**Ogia**

▼ **Igandea 28:** Bolintxo.

▼ **Asteazkena 1:** Mizpildi.

**FARMAZIAK**

▼ **Ostirala 26:** Mozos/Azkoaga.

▼ **Larunbata 27:** Camacho/España

▼ **Igandea 28:** Camacho/Corcuera

▼ **Astelehena 29:** Puy/Inizar.

▼ **Asteartea 30:** Guallar/Amezua

▼ **Asteazkena 1:** Estella.

▼ **Osteguna 2:** Mozos.

**PINTURAS BERGARA S.L.**

• INDUSTRIARAKO PINTURAK

• GARBIKETAK

• APAINKETARAKO PINTURAK

• ERROTULOAK

Aranerreka, 32 behea BERGARA. Telefonoa eta faxa: 76 11 40

# Labegaraietako jaiak

## Maria Pilar Larrañaga auzotarrarekin berriketan

**Maria Pilar Larrañaga Iturriko etxean jaio zen eta harrezkero Labegaraietan bertan bizi izan da. Lehengo eta oraingo jaiak ederto ezagutzen ditu Maria Pilarrek.**

- Askok aldatu dira jaiak zuk ezagutzen dituzunetik?

- Nire bizi guztian izan dira jaiak Labegaraietan. Nik ezagutu ditudanak jai dotoreak ziren: Udal Musika Banda ere etortzen zen eta oso giro polita egoten zen. Orduetik, gazte denboratik, epokak dakarren aldaketa gertatu da. Lehen, adibidez, auzoa herritik oso independente gelditzen zen... Kontutan izan politikan edo erlijioan aldaketa asko izan dela. Garizuman, esate baterako, 7 astetan ezin zen musikarik entzun, dantzan egiterik pentsatu ere ez, eta zina joanez gero, *pekatu mortala*.

- Zein izaten zen lehen jaietako ekitaldirik arrakastatsuena?

- Meza nagusia oso ederra izaten zen, gero sekulako *piskolabisa* ematen zuten nagusientzat. Orduan Zerrajerak antolatzen zituen festak. Bazkaria ere egoten zen, txirrindulari eta korrika lasterketa, umeendako kukañak... eta gauez, Musika Bandaren kontzertura, herriko jende guztia etortzen zen. Ondoren, Altos Hornoseko apaizen laguntzaz, auzoko gazteek hartu zuten jaien antolaketaren ardurua.

- Gaur egungo jaiekin disfrutatzeko duzu?



Maria Pilar Altos Hornosen bizi izan da beti.

- Disfrutatu? Ez dut ba disfrutatuko! Orain meza entzun, bertsolariak edo zedozer baldin badago ikusi, herri bazkaria joan eta gazteekin egon... Gustatzen zait bertan egotea. Oso gauza aberatsak topatzen dituzu gaurko gazteen artean. Nik neuk ondo pasatzen dut eurekin. Familia eta ingurukoekin dagoen hartumana izugarri gustatzen zait.

- Beste auzo batzuetako jaietara joaten zara?

- San Prudentziara asko joandakoa naiz... Ahal izan dudanean San Blas edo San Juanera ere bai... Pazkuak? Auzoko jaiak nahiago. Pazkuetan gauza interesgarriak izaten dira baina sekula ez naiz izan oso kalezalea.

### EGITARAUA

#### Larunbata, 27

- 12:30: Marrazki lehiaketa.
- 16:00: XX. Mus Txapelketa Agirrebeña tabernan.
- 16:00: I. Futbolin Txapelketa jaietako lokalean.
- 17:00: I. Patata tortila Lehiaketa.
- 18:00: I. Labegaraietako Herri Krossa.
- 23:00: Rock jaialdia: Etsaiak, Latzen, Piperrak, Manolo Cabezabolo eta Animales muertos.
- 05:00: XV. Galtzontzilo eta Kulero Lasterketa. Ondoren, porrusalda.

#### Igandea, 28

- 09:00: XXXIV. Txirrindulari Lasterketa. Labegaraieta Saria.
- 12:00: Meza. Ondoren salda.

#### Asteartea, 30

- 22:00: III. Auzo Afaria losu eta lokin trikitilariekin.

#### Asteazkena, 1

- 10:00: Diana txistulariekin.
- 11:00: Meza Nagusia, Mariaren Lagundiko Txilintxa abesbatzaren laguntzaz.
- 12:00: Udal Musika Bandaren kontzertua San Jose elizan.
- 13:00: Dantza Askatuko emanaldia ondorengo bikoteekin: Alexander eta losune, Xabi eta Irantzu, Ion eta Miren, eta Andoni eta Hiart. Trikitilariak: losu eta lokin. Txorizoa eta salda.

**"Gaztetako jaietatik, nagusiki, denborak dakartzan aldaketak gertatu dira"**

**JAUNARTZEAK, EZKONTZAK,  
DESPEDIDAK, KARTA,  
EGUNEKO MENUA,  
LOGELAK.**



**ZABALA**  
JATETXEA • OSTATUA

Labegaraieta BERGARA.  
Telefonoak 76 20 07 - 76 42 57

## Istripu fantasmak

Badaude une batzuk, herri txiki hauetan ere, hiri haundietan maiz gertatzen den bezala, jende arteko harreman hotz, urrun eta lehorrez osaturiko pozoi hori gutaz jabetzen dena, gure zainetan jario gorputz guztira hedatuz. Sarritan bihurtzen gara geurekoiak jendearekiko hunkidurari eta sentimenduei ihes eginez, arazoak edo diru kontuak sumatzen ditugunean batez ere. Zuzentasunaz ahazten gara. Egia esatez denori gertatzen zaigu hau, gradu ezberdinetan. Ni neu ere errudun sentitzen naiz.

Zergatik natorkizuen filosofia honekin galdetuko diozue zeuen buruari. Bada erreflexio sesio ugari izan ditudalako pasa den egun baten gertatutakoaz gero; Banindoa goizean goiz, oraindik erdi lo, nire kotxearen pilotukidearen atea zabaltzera zenbait gauza eserleku gainera jaurtitzeko, eta hara non atea hamar zentimetro inguru kanporatuz egin zuenean "krrrrrrik" hortzikidurotsu bat entzun nuen. Ateak zakarki tope egin zuen. Atea ezin zabaltze hori, kotxeari jo zioten golpearen eragina zen. Lehenengo erreakzioa, "parabrisean" begiratzea izan zen ea egileak notaren bat utzia zuen, agian ni konturatu ez aurreko egunean. Baina ez zegoen ezer. Segundo batzuetan harridura...

Agudo asko egin nuen buruz aurreko egunean erabilitako aparkalekueetatik errepa-soa. Bai, ia ia %100eko ziurtasunez esan nezakeen, Mizpirualde egoitzaren parean dagoen aparkalekuan izan behar zuen. Bazterretan lekurik ez zegoenez erdi erdian aparkatu nuen, beste kotxe baten aurrean, beraz bi ko-

txe geunden erdi-erdian. Ordu erdi baino gutxiagoan itzuli nintzen, baina ez nintzen ezertaz jabetu, kotxearen beste aldetik sartu bainintzen (Rover urdin bat daukat eta apirilaren 16an gertatu zen hau, autoreak idatzi hau irakurtzen badu hau badaezpada). Bai badakit debekatuta dagoela hor aparkatzea, baina hori ez da kontua orain.

Norbaitek etxera deituko ninduenaren itxaropena mantentzen nuen eta horrela komentatu nuen inguruko jendearekin, eta hona hemen jasotako erantzun batzuk: "Iñuzentioi, ezik espero iñon arrastoik..."; "Holakuak hamaika mutil...!"; "Neri be jo josten behin, 50.000 pzta. konpontzia eta iñor ez zuan agertu..."; "Neri be ez txostan ba madarikaturen batek kotxia arraiez josi..." Itxura denez, horrelako anitz kasu gertatzen dira egunero. Gehienak gazteek egindakoak, edo alkoholaren eraginez gertatutakoak omen dira. Niri ere gertatu izan zait noizbait kotxearen isplua apurturik aurkitzea jaietan edo. Baina ez da oraingo kasua, egun argiz eta astegun baten herrian, kolpe eder bat, eta egilerik ageri ez. Benetan harrigarria. Nik zera uste dut: bakoitza bere okerrez arduratu behar dela zama besteengan utzi gabe. Eta honi buruz erreflexio dei bat egin nahi nuke.

IOSU RODRIGUEZ

## Argi falta

Zoragarria da benetan, goizean goiz jeki eta udaberriko printzen berotasunaz gozatea, zoragarria da era berean Euskal Herri-


ko zelai eta soroetako lore berriak usainta eta ikustea, baina ez da batere zoragarria udaberriko goiz eder horietan euskal gazteok egin behar duguna egitea, hau da, klasera joatea. Klasera joateak suposatzen du gaizkiegona areagotu egiten da gaur egun euskal ikasleak jasaten dugun kultur ezagutza dela eta. Nori ez zaio tokatu benetan eskoletan A eta B ereduaren existentziaren ondorioz suertatzen diren tirabirak jasaten?

Zenbat eta zenbat ikaslek egin behar izan dituzte beraien ikasketak espainiar ezin dutelako beraien ama-hizkuntzan kanpura bat egin? Horrelako mila galdera etortzen zaizkit burura eta benetan, pentsatze hutsa amorrutik betetzen nau. Zorionez, duela urte batzuk ikasle talde batzuk honekin bukatu behar ko apustu gogor bat egin zuten eta hori ondorioz sortu zen gaur egun ezagutzen dugun Ikasle Abertzaleak. Txalotzekoa da benetan urte hauetan IAK lortu dituen gauza, la, pausoz pauso benetako euskal eskola publiko bat lortzeko bideak zabaltzen hasi baitira, gure euskal nortasuna defendatu behar hian. Gaur egun euskarak jasaten dituen eraso larriak aurrez aurre eta euskaldun guztien harrotasun osoz konpontzen saiatzen dira, egunero antolatuz, egunero arriskatu beraien ideologiarekiko fidelotasun osoz.

Hau dena dela eta beharrezkoa ikusitakoa dut Euskal Herriko ikasle abertzale guztiak eskerrak ematea, ez soilik ikasle ikuspuntutik, baita euskal gazte ikuspuntutik ere. Horretarako, eta besterik gehitu gabe zorionak eta aurrera bolie! Gora EHko Ikasle Abertzaleak!

I.I.A. (NAN: 72.581.220)

## Tiira biraka



**Udaberriko kontzertua**

Bergarako Musika Eskolaren Udaberriko kontzertua iragarri da maiatzaren 12rako Frontoian. Ondoren, 14:30etan, herri bazkaria izango da Espoloian. Bazkarirako txartelak Musika Eskolan bertan edo Lazkano oinetako dendan eskuratu daitezke. Nagusiek 2.100 eta gainontzekoek 1.200 pezeta ordaindu beharko dituzte.

**Maiatzaren 1ean igerilekuak itxita**

Asteazkenean, maiatzak 1, Udal igerilekuak itxita egongo dira.

**Telefonicari eraso**

Ezezagun batzuk Telefonicaren kontrako eraso egin nahi izan zuten igande gauean. Ertzaintzak jakinarai digunez, huts batengatik erabilitako plastikozko poteak eta gasolina bidoiek ez zuten surik hartu.



Legealdi honetan San Antonioko ermita bota egingo da Antzuola erreka bideratzeko.

**Arau subsidiarioek herriaren garapena finkatuko dute**

**Victoriano** Gallastegi alkateak, Jose Antonio Etxeberria Hirigintza zinegotziak, Javier Yeregi udal arkitektoak eta Juan Ignacio Galdos abokatuak arau subsidiarioen onarpenaren balorazioa egin zuten asteartean prentsaurrean. Alkateak adierazi zuenez, "1983an hasi eta prozesu luzea izan da arauena. Azkenean behin betiko onarpena eman zaio eta agiri urbanistiko oso inportantea dela esango nuke. Eskerrak eman nahi dizkiet proiektu honetan kolaboratu duten guztiei". Yeregi arkitektoaren hitzetan, "lanean hasteko

*dokumentua da arau subsidiarioena, bertan Bergarako planeamendu orokorra jasotzen baita. Dokumentu horretan oinarrituz herriko garapen urbanistikoa egin abal izango da".*

Berehalako aktuazioen artean Masterrekatik San Antoniora doan tartea eta San Migelen erreka bideratzeko lanak aipatzen dira. Masterreka San Antonio tarte horretan 400 bat etxebizitza egiteko asmoa dago eta horrez gain Torrekuako etxeen parean autobus geltoki berria egingo da. Bestalde, San Migelen, Antzuola erreka bideratu

beharko da eta horrek 400 milioi pezeta inguruko aurrekontua izan dezake. San Migel kaleko 1, 3 eta 5 zenbakiak eta San Antonioko ermita bertan behera bota beharko dira eta lan horiek legealdi honetan egiteko asmoa dago. Zentzu horretan, Udala etxe horietako jabeekin negoziatioetan dela aipatu zen. Martokua gainean ere plaza txiki bat egingo da.

Bestalde, zeresan ugari eman zuten Fraisko zuriko etxebizitzak 2055 urtera arte konsolidatzen dira. Zubietan, berriz, errepidea zabaldu eta erreka bideratuko da.

**HILDAKOAK**

**Santiago Agirrebarrena Arriaran**

Apirilak 18, 65 urte

**Venancia Fernandez Rivas**

Apirilak 25, 98 urte

**JAIOTAKOAK**

**Andoni Kortabarria Barruso**

Apirilak 24

*Pepelu*

**Ilepaindegia**

Zurradero, 2 ☎ 76 43 07  
**BERGARA**



**DEBA GARAIA**  
**INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA**

Arrasate / Bergara / Elgoibar  
**T. Aranzadi, 2 beheha ☎ 76 21 80-76 06 37**

**ANTIA**

**HARATEGIA URDAITEGIA**

*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*

**Matxiategi ☎ 76 15 09**

# 1.778 milioi pezetako aurrekontua izango du Bergarako Udalak


*Aurrekontuak EAJ, EA eta PSE-EEren botoekin onartu ziren*

**Asteheneneko Plenoan 1996ko udal aurrekontuak onartu ziren EAJ, EA eta PSE-EEren aldeko botoekin. HBk, berriz, osoko enmendakina aurkeztu eta ezezko botoa eman zuen.**

Udal aurrekontua 1.778 milioikoa da eta kopuru horri Mizpirualde Erresidentziako (200 milioi) eta Udal Euskaltegi-ko (53 milioi) gehitu behar zaizkio. Victoriano Gallastegi alkateak adierazi zuenez, "austeritate mailan lan egin behar da eta herri honek dituen lehentasunetan sakondu nahi dugu. Udal aurrekontuetan gastuak murriztu egin dira Udaletxearen zorra gutxitu ahal izateko". Gaur egun Udalak duen zorra %19,6koa da, iaz %22koa zelarik.

## Inbertsioen beherakada

Udaletxearen berritze lanak amaitzeak gastuen beherakada suposatu du. Horrela, inbertsioetan 195 milioiko gastuak aurri-kusten dira. Aurreko urtean, berriz, 421 milioiko inbertsioak egin ziren. Aurrekontua ere %8,3 jeitsi da, 1995an 1.928 milioiko presupuestoan izan baitzuen Udalak. Portzentaiari dagokionez, aurrekontuaren %31,7 pertsonal gastuetara bideratuko da, %30,7 zerbitzu oroko-



Udaletxearen berritze lanak amaitzeak aurrekontuaren beherakada ekarri du.

retara, auzoentzat %8,3 izango da, Hirigintza Zerbitzuak %5,5, Ongizate Zerbitzuak %7,9 jasoko du, Kulturak %6,3, Hezkuntzak eta Euskarak %5,4 eta Kirolak, berriz, %4,2.

## Aurrekontuaren balorazioak

Boto esplikazioan, Maite Aristegi HBko zinegotziak euren ezezko botoaren arrazoiak azaldu zituen. "Ez dugu aurrekontuak lantzeko aukerarik izan eta oraindik komisio batzuetan aurrekontuak aztertzeke daude. Ez da inongo planifikaziorik ikusten, inbertsioak ajustatzeke daude eta ezin da onartu esate baterako politikoentzat 28 milioiko gastuak egotea. Bestalde, gure onda-

sunak hobeto aprobetxatu beharko liriateke. Uragatik Kontsorzioari 100 milioi ordaintzea onartezina iruditzen zaigu eta landalurrekin lortzen diren sarrerak eskasak dira". Alkateak HBko zinegotziek prentsaurrean eta Plenoan esandakoei erantzun nahi izan zien: "Batzorde guztietan zuen proposamenak azaltzeko aukerarik izan duzue baina ez duzue egin. Planifikazioari dagokionez, zorra gutxitu nahi da eta horretarako lehentasunak markatzen dira. Politikoen partidak, berriz, berdinak ziren HB Gobernuan zegoenean. Eta urari dagokionez, Kontsorzioarekin sinatutako hitzarmenarekin uraren kostua nahiko merkea dela esango nuke".

HBk INEMeko bulego herrira ekartzeko Udalak jectorik ez egitea salatu zuen eta alkateak hori gezurra dela erantzun zuen, galdera horretan Udaletxean egin behar direla gaineratuz. Eztabaidea honetan Aitor Aranzabalek (HB) "lotsagabe" deitu zion alkateari eta honek berehala moztu zion hitza. Alkateak adierazi zuenez, Aranzabalek alkatearen kontra esandakoa erretiratu ez bitartean ez du hitza hartzeko aukerarik izango.

Azkenik, Alvaro Esparza PSE-EEko zinegotziak, "positiboak, koburak, renteak eta bizi dugu egoerarekin errealistak dira landutako aurrekontuak, horregatik gutxi alderdiak baiezko boto eman dio" adierazi zuen boto esplikazioan.



**Bideo ikastaroa Kultur Etxean**

Islada bideogelak antolatutako bideo ikastaroa izango da Kultur Etxean maiatzaren 8tik ekainaren 27ra bitartean. Klaseak astelehen, asteazken eta ostegunetan emango dira, arratsalde 3 orduz. Prezioa 7.000 pezetakoa izango da eta langabetuek 3.500 pezeta ordaindu beharko dituzte. Argibideak eta izen-ematea Islada bideogelan, Kultur Etxean (77 91 58 telefonoa).

**Xipizaroren deia begiraleei**

Udalekuetan begirale lanak egiteko apuntatu direnzentzat froga egingo da datorren maiatzaren 4ean. Froga goizeko 9:30etan hasiko da eta interesatuak Seminarioan aurketu beharko dira.

**Euskadiko Dantza Askatuko txapelketa**


Moises Aspiazu dantza taldeak, Udalaren laguntzaz antolatuta, 14 urtetik beherakoentzat, Euskadiko XIX. Bikote Dantza Askatuko txapelketa izango da Bergaran maiatzaren 26an. Kanporaketa fasea goizeko 11:30etan hasiko da eta sailkatzen diren 10 bikoteek finalean parte hartuko dute 17:30etatik aurrera. Bikoteek izena eman beharko dute maiatzaren 6tik 18ra bitartean Kultura Zerbitzuan, 77 91 58 eta 77 91 59 telefonoetan.

**Narvaizako langileen manifestaldia**

Narvaizako Enpresa Komiteak antolatutako manifestaldia izango da bihar, larunbata, Bergaran. ELA eta LAB sindikatuak bat egin eta dei egin zuten asteazkenen prentsaurrean manifestaldi honetan parte hartzeko. Manifestaldia 12etan hasiko da.

**Elorregiko jaiak astebukaeran**

Bihar larunbata "Mendia eta Erribera" jota taldeak eta Peñagarikano eta Egaña bertsolariak alaitutako auzo bazkaria izango da San Prudentzian, ordubietan. Gauez, 10etan, soinu-joleekin erromeria izango da. Igandean, berriz, goizeko 11etan meza Orfeoiko abeslari talde batek lagunduta, ondoren beteranoen pelota txapelketako finala eta Moises Aspiazu taldearekin trikitixa.



Igandean beteranoen pelota txapelketako finalak jokatu dira.




**Ducci** D303 Eredua- 6.950 Pta.

*Zenbait xehetasunek biziki jazten dute*



**Ducci** D96 Eredua- 7.550 Pta.

Begiradarekin liluratzeko diseinuak. Zure estiloari doazkion moduak. Punta puntazko modaren xarma. Multiopicasen **Ducci'96ko**, bilduma eksklusiboa da. Eguzki lente graduatuekin, zure beharren arabera. Hurbil zaitetz eta ezagutu ezazu.



Gure mailegu txartelarekin ordain ezazu 3 hilabetez kargurik gabe.

**MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA**

ZERBITZU OPTIKOETAN 1a

J. Carlos Guerra, 1 • ARRASATE  
Ibargaray, 16 • BERGARA

J. M. Barandiaran Enparantza, s/n • ORDIZIA

**MULTIOPTICAS EIBAR**

ZERBITZU OPTIKOETAN 1a

Bidebarrieta, 2 • EIBAR

**Eguzkitako betaurreko graduatuak 9.800 PEZETATIK AUERRERA!!**

# Txus Congil

## Askagintzako kidea

**Txus Congil Askagintzako kideak hitzaldia eman zuen astelehenean Kultur Etxean Pepe Rei EGINEKO kazetariarekin batera. Biek Galindo sarea eta Euskal Herriko droga trafikoa aztergai izan zuten. Gaiaren inguruan Txus Congilekin egin dugu berba.**


**- Zein da hitzaldi hauen bitartez zabaldu nahi duzuen mezua?**

- Droga trafikoa berruak dauden ustelkeriak azaltzen ari gara, nola polizia ezberdinak maila altu batean inplikaturik dauden eta nolakoak izan beharko litzatekeen herriaren erantzuna. Gure mezua zera da: ustelkeriaren aurrean pasibitatea konplizitate bihurtzen dela eta gure ustez norbera salaketak eta kontraesanak sortzen dituen agente bat izan behar dela.

**"Droga trafikoa sarea aztertzen hasten garenean, beti agertzen da Intxaurrendoko kuartela"**

**- Zeintzuk eta zein mailatan daude inplikaturik droga sarean?**

- Droga trafikoa sarea aztertzen hasten garenean, 10 urtetik hona, beti agertzen da Intxaurrendoko kuartela. Ez da kasualitatea leporaino inplikaturik dauden goardia zibilak aurkitu izana. Batzuetan trafikanteek goardia zibilak dituzte bere menpe. Hor zegoen Maximo Branco komandantea (Santamaria eta beste sare bateko langile bat), Pindado tenientea ere droga trafikoa sarean sartuta zegoen eta Pinto operazioan atxilotu zuten Andaluzian. Izugarritzko korrupzioa zegoela aitortu zuen eta berak ere ez dakit zenbat deskarga onartu zituen. Trafikoa sareak aztertzean beti Intxaurrendon amaitzen dugu. Beraz, oso garbi dago asuntua eta hori da zabaldu



"Droga gehiago dago gaur egun".

nahi duguna.

**- Zein da Askagintzaren zeregina?**

- Askagintzaren zeregina betidanik prebenzio lana izan da. Baina konturatzeko gara gu prebenzioa egiten saiatzen garenean droga trafikoa eta ustelkeria horrek ez digutela uzten gure lana lasai egiten. Maila honetan gure jarrera salaketa egitea da, sentsibilizazioa zabaldu eta pakean uzteko eskatu, gure lana lasai eta bide on batean egin ahal izateko. Hori eskatzen dugu, ez manipulatzeko drogomenpekotasun arazo eta droga menpekotasun fenomenoak hezkuntza mailan, prebenzio mailan, auzoetan, familian eta beste hainbat mailatan aztertzeko, alegia.

**- Bukatzeko, zein**

**puntutan dago drogaren arazoa?**

- Kopuru aldetik, droga gutxiago hartzen, edaten edo injektatzen ditugu, baina kalitate mailan kontsumo kaltegarriak haundiagoak dira. Helduen mailan jaietan eta ospakizunetan eta gazte mailan astebukaerak. Droga gehiago dago gaur egun. Heroina mantentzen ari da, kokaina ez da hainbesteko booma izan, hachis-a mantentzen ari da, baita extasis eta speed-a ere eta edari alkoholikoak, zoritxarrez, igotzen ari dira. Eta konponbidea gure esku dago udal, herri erakunde, guraso, irakasle, gazte, komunikabide, profesional, herritar eta abarrek baliatu egin eta eskuak lotu eta konponbidea geure eskuetan izango da.

# Carmen Garate

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.  
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

## KONDE



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

PANADEROKUA

## Osasuna

## Bularreko minbizia

- Zelan egin daiteke bularretako minbiziaren diagnostiko goiztiarra?

- Mamografiak bularretako minbizia aurrez detektatu dezakete eta kasu horretan minbizia sendatzeko aukera izaten da. Mamografiak, detektatzeko eta norberak sentitzeko ere oso nekezak izaten diren lesio txikiak erakusten dituzte eta horrez aparte beste metodo osagarri batzuk ere badaude: ekografiak, azterketa fisikoak eta autoexamina izeneko metodoa.

- Autoexamina nola egin behar da?

- Norberak bere bularrak aztertzea izango litzateke. Organu konplexua da eta hilabete batek bestera zerbait antzeman dezakezu. Zerbait arraroa somatuz gero onena espezialista baten eskutan jartzea da, beranduegi izan aurretik. Azken batean norberak bularren arteko diferentziak azter ditzake: bularren inguruak, kozkorren agerpena, erroibenak, titiburuko eta azaleko uzkurdurak eta abar.

- Minbizia diagnostikatuz gero, zer?

- Kasu bakoitza indibidualizatu egin behar da, emakume gazte eta helduen artean diferentziak daude eta. Bularra kontserbatu eta tumorea kendu nahi izango da eta horretarako tratamendu osagarri batzuk badaude: kimioterapia, radioterapia eta hormonoterapia. Diagnostikoa izatetik trata-



**M. JESUS MITXELENA**  
(Doktorea)

mendua bukatu bitartean urtebete inguru igaro daiteke.

- Zein adinetakoei eragiten die bularretako minbiziak?

- Kasu gehienak 50 urtetik 64 urtera bitarteko emakumeen artean izaten dira. Azken batean kasu-

en %50a 50 urte baino gehiagoko emakumeetan izaten dira eta kalkulatzen da 12 emakumetatik batek bularretako minbizia izango duela. Gipuzkoan, esate baterako, 100.000 emakumeren artean 70 bat kasu egoten dira urtero.

- Zein da Euskal Herriko egoera beste herrialde batzuekin konparatuta?

- Hemen intzidentzia maila erdia mailakoa da Europako beste herrialde batzuekin konparatuz. Hala ere, esan behar da bularretako minbiziaren kasuak nabarmen hazten ari direla azken 30 urteetan European zein Estatu Batuetan.

- Zer gomendatuko zenieke emakumeei?

- Osasunez ondo dauden emakume gazteei, 20 urtetik aurrera, hileroko, autoexamina egiteko ohitura hartzeko eskatuko nieke eta zerbait somatzeotan medikuarengana joatzeko. 30 urtetik gorakoei, berriz, urtean behin medikuarengana joateko eta 40 urtetik 50 urtera bitartekoei, medikuarengana joateaz gain, mamografia egiteko. Azkenik, 50 urtetik aurrera, bi urte behin mamografia egitea gomendatuko nuke. Informazioa jasotzeko Gipuzkoako Emakume Mastektomizatuen Elkartera (42 16 55) jo dezakete.

## "Mamografiak bularretako minbiziaren diagnostiko goiztiarra egin dezakete"



Bularretan zerbait somatuz gero espezialistarengana joan behar da.

A  
R  
R  
A  
N  
O

**Taberna**

Kruz Gallastegi BERGARA



**Matxiategi**  
**Elektragintza**  
**C.B.**

**ELEKTRIZITATE**  
**MATERIALEN**  
**SALMENTA ETA**  
**INSTALAKUNTZA**

**Fleming Doktorea, 5**  
**☎ 76 19 94**

# Liburuak buruan

## Irakurtzeko arrazoirik bada

**Liburuaren eguna urtean behin izaten bada ere, irakurle amorratu-entzat apirilaren 23a bezain garrantzitsuak dira urteko osterantzeko egunak; horientzat egunero da liburuaren eguna.**

**L**iburutegiko bazkide-rik zaharrena da Josu Andoni Ugalde (73 urte), gazteena, berri-ri, bere biloba Patxi. "Bi urte ditu eta urtebeterekin egin nuen bazkide. Nirekin etortzen da liburutegira eta txikien gelara joan, beretzako moduko liburuak hartu eta 'irakurri' egiten ditu".

Bi astean liburu bat irakurtzen du. "Liburutegira joaten naiz, eta han nire 'asesora literarioek' liburuak gomendatzen dizkidate. Ia beti asmatzen dute".

### Lau hizkuntzatan no problem

Roman Uriarte Ingalaterran, Frantzia eta Katalunian bizi izandakoa da, eta ez du inongo arazorik 4 hizkuntza horietan irakurtzeko;

euskaraz, osterara... "euskaraz bigarren lerrora iritsi eta laga egin behar izaten dut. Batuan idatzita egoten dira, eta nik batuan ez dakit; nik borrelako nabasketa bat egiten baitut. Idazle espainiarrak ere ez zaizkit gustatzen".


"Yo Claudio" du gustokoen, hiruzpalau aldiz irakurrita du. "Lehen Zane Greyren oesteko elebe-

rriak gustatzen zitzaizkidan, orain Ken Follet eta Noah Gordon ditut begikoen. Une honetan Bukowskyren 'Pulp' eta Tom Sharpen 'Lo peor de cada casa' ari naiz irakurtzen".

### Liburuak ez dira apaletan gordetzeko

Larraitz Uribesalgok ez du egunero irakurtzen,

baina beti izaten du liburuaren bat esku artean. "Atxagaren 'Gizona bere bakardadean' oraintxe bukatu dut. Atxagaren onena iruditu zait, baina ez da bereziki gustokidudan idazlea. Sarrionaindia dut gustokoen, bere ipuinak, narratioak... Birritan irakurridudan bakarra Inaki Zabalearen '110. Streeteko geltokia' da. Poesia gu-



Badirudi CD-romak ez duela oraindik arrakasta handirik. Irakurleentzat liburuak ez du parekorik.

# Sugoi

**ERLOJUAK, ARTIKULO  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua, 2 behea  
☎ 76 59 54 BERGARA

## Deco-Textil ZANGITU

**Etixerako lantzeria  
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak  
Bisiloak, tapizak, etab.**

Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69

## Masterreka 24

**Nepal, India eta Hego  
Amerikako jantziak**

Masterreka, 24 BERGARA

*txiago irakurtzen dut".*

Normalean erositako liburuak eta euskaraz irakurtzen ditu, euskara asko gustatzen zaiolako. Gazteleraz oso gutxi; frantsesez eta ingleseztan, berriz, hizkuntzak ikaste aldera, "ez irakurtzeak ematen didan plazerragatik". Larraitzen ustez liburuak ez dira apaletan dotore edukitzeko. "Liburuak ez ditut daudenean lagatzen, azpimarratu, obartxoak idatzi... zikintzeko obitura dut". Zenbait lehiaketatan sariak irabazita ditu. "Nik niretzako idazten dut eta idatzitakoa ganorazkoa dela iruditzen bazait lehiaketaren batera aurkezten dut, baina azkenaldian ez dut ezer aurkeztu. Idazleak barruan sentitzen duena kanpo-

*ratu beharra izaten du, nik behar hori noizean behin izaten dut. Irakurri, berriz, ondo pasatzeke, ihesbide moduan egiten dut".*

**Salduenen zerrendak kontutan hartu**

Elizabeth Georgen "Una feliz liberacion"en gainean ditu begiak Lupe Maciasek. Zientzia fikziozkoak eta beldurrezkoak ez zaizkio gustatzen, historikoak dira gustoren irakurtzen dituenak. Batzaz beste, astean liburu bat irakurtzen du. "Lehen ez nuen bainbeste irakurtzen, baina liburutegira etortzen naizenetik aukera zabala eta liburrurik berrienak daudenez, gebiago irakurtzen dut".

Egunean ordu erdiren bat irakurtzeko ohitura du. "Gauean, isiltasuna dagoenean, kontzentratzea kostatu egiten zait eta". Normalean liburuak bukatu egiten ditu, baina "El primer hombre", erromatarren trilogia bukatzea izugarri kostatu zitzaion. "Kokoteraino, zoraturata geratu nintzen bainbeste erromatarrekin".

Liburuak gomendatzea oso zaila dela dio, "denok desberdinak gara, gusto desberdinak ditugu eta niretzat polita dena, beste batentzat zatarra izan daiteke. Hala ere, niri gustatutakoak gomendatzen ditut. John Grishamen 'Legitima defensa' ederra iruditu zitzaidan eta orain gizona ari da irakurtzen. Nik

*neuk, dendetako eskapateetan dauden liburuak ikusteaz gain, egunkarietan etortzen diren salduenen zerrendak ere kontutan hartzen ditut".*

**BBCen euskaraz**

"Neure burua jazteko hasi nintzen irakurtzen". Roman Uriartek parean harrapatzen duen guztia irakurtzen du. "Besteak beste, Barandiaran, Arturo Campion eta Pio Barojaren lan guztiak ditut, eta sarritan irakurtzen ditut. Orain arte gebien gustatu zaidana Txomin Agirreren 'Garoa' izan da: haren euskara, izate... Lehen ez, baina orain euskaraz erraz irakurtzen dut".

Romanek zenbait akzesit irabazita ditu litera-

**MILA AGIRREZABAL**

UDAL LIBURUTEGIKO LIBURUZAINA

**Zenbat liburu daude liburutegian?**

8.000 baino gehiago.

**Zein eratako zerbitzua eskaintzen duzue?**

Batetik, kontsultatzeko materiala dugu (boletinak, entziklopediak...), bestetik, maileguan eramateko liburuak. Liburutegia edozein eratako premia duenak bertako materialaz baliatuz erabiltzeko tokia da.

**Zein eratako jendea ibiltzen da?**

Gehienbat, umeak, gazteak, 40-50 urtekoak eta jubilatuak. Orain dela gutxi arte, bereziki, ikasleak ibiltzen ziren, baina jendea liburutegia

ezagutzen doan heinean eskaintza zabala dagoela konturatzen da, eta gero eta jende desberdinagoa etortzen da.

**Noiz ibiltzen da jende gehien?**

Opor garaian, orduan mailegua asko igotzen da.

**Zein eratako materiala da erabiliena?**

Entziklopediak, hiztegiak, boletinak, eleberriak...

**Eleberrietan zein da arrakastatsuen?**

Ken Follet, Rosamunde Pilcher, Noah Gordon eta John Grishamen.

**Liburutegian modarik badago?**

Bai. Umeek Walt Disneyren filmeetan oinarritutako dena irakurtzen dute. Helduek, oster, komunikabideetako erreferentzia eta kritikak hartzen dituzte kontutan.

**Zein hizkuntzatan irakurtzen da gehien?**

Haur eta gazteek euskaraz; euskara menperatzen dutelako eta eskaintza gero eta handiagoa delako. Heldu gehienek gazteleraz.

**Zein idazle eta liburu gomendatuko zenuke?**

Noah Gordon eta El médico.

**"Opor garaian lagatzen ditugu liburu gehien; haur eta gazteek euskaraz irakurtzen dute"**

**HARATEGIA- URDAITEGIA**

**Sebastian Imaz**

**Bildotsa, txahala eta oilaskoak**

Aranerreaka, 1 ☎ 76 32 67 BERGARA

**KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07**

*Tomas Gezalaga*

**ANTZUOLA BERGARA**

- Apainketarako eta industriarako pinturak •
- Paper margotuak •
- Moketak eta tapizatuak •

**BERGARA MARMOLERIA**

**PEDRO SALEGI OSA**

*Sukalde eta bainu enzimerak*

**Uriarte, 8 BERGARA**

☎ 76 11 99 / 76 14 47 Faxes: 76 04 77

**JOSUNE LIZARRALDE**

**ETXEPARE-BILINTX LIBURUDENAKOAK**

**Nork erosten ditu gehien liburuak?**

30 urtetik gorakoek. Horiek dira zaletasunez irakurtzen dutenak, benetako irakurleak. Gazteagoek ikastetxeetan agintzen dietelako irakurtzen dute.

**Noiz saltzen da gehien?**

Gabonetan eta udan, oporretarako.

**Modarik bada liburuetan?**

Modak baino gehiago, komunikabideetako aipamenak eta ahoz ahoko gomendioak funtzionatzen du.

**Zein eratako liburuak dira salduenak?**

Gazteleraz kaleratutakoak eta eleberriak. Azkenaldian historikoak, intrigazkoak eta beltzak asko saltzen dira.

**Idazlerik arrakastatsuenak zeintzuk?**

Noah Gordon, Arturo Perez Reverte, Antonio Gala...

**Jendea zer eskuratu ez dakiela etortzen da?**

Erregalo bat egin behar dutenek hartzailearen gustoa zein den ez dakitenean etortzen dira horrela. Asko irakurtzen duenak badaki zer eraman.

**CD-romak liburuaren merkatua jan**

**egingo ote du?**

Oraindik ez dago sartuta, eta ez al du jango! Bestela ere ordenadorea asko erabiltzen da. Bestalde, udan kaseteratutako liburuak izan genituen eta jendeak kotxean entzuteko erosi zituen.

**Gehien saldu duzuen liburua?**

Gazteleraz Noah Gordonen El médico eta euskaraz Atxagaren edozein.

**Zein liburu gomendatuko zenuke?**

Antonio Galaren edozein.

**Zaletasuna pizteko liburua?**

Noah Gordonen El médico, denei gustatzen zaie.

**"Azkenaldian historikoak, intrigazkoak eta nobela beltzak asko saltzen ditugu"**


tur lehiaketetan. "Lagunen gerrako jirez, hemendik Ameriketara joandako euskaldun ez idatzi izan dut".

Liburuez gain, badu oso maite duen eskutitz bat ere: "leben BBCn berri desberdinetako albisteak ematean bertako hizkuntzan egiten zuten berba, baina euskara sekula ez nuen entzuten. Hala, 1945ean edo 46an, Shakespearen Hamlet euskarara itzuli zela eta BBCra bidali nuen, ea euskaraz zerbait irakurriko zuten eskatuz. Halako batean eskutitzez erantzuna jaso nuen, liburuaren berri eman zutela eta apaiz batek euskaraz liburuaren zenbait pasarte irakurri zutela esanaz. Eskutitza urrea bezala dut gordeta". ■

**Bazenekien?**

Liburu hitza latinezko "liber"-zuhaitzaren azala-hitzetik dator.

Kristo aurreko 4000. urtean Mesopotamian liburuaren aintzindari ziren buztinezko taulatxoak erabiltzen ziren. Horrelako milioi erdi daude. K.a.ko 3000.ean papiroko rolloak erabiltzen zituzten Egipton. Garrantzisuena K.a.ko 1800.



urtekoa da, "Hildakoen liburuak". Txinarrak zeta edo seda erabiltzen zuten. Grezian papiroko rolloak K.a.ko 700ean azaldu ziren. Titulua bukaeran izaten zuten. K.a.ko 300. urtean Erroman pergaminoak indar handia hartu zuen.

Unibertsitateekin batera, eta XVIII. mendetik aurrera papera gero eta gehiago erabiltzeak liburuaren zabalkundearen eragin zuen. Liburuaren iraultza XV. mendean gertatu zen, Gutenbergek inprenta asmatu zuenean. Inprimatu zen lehen liburuak Biblia izan zen, XV. mendean.

Libururik salduena eta hizkuntza gehienetara itzuli dena da Biblia.

Euskal Herriko lehena, "Manuale Pampilonense", Iruñean Arnaldo Guillermo Brocariok inprimatu zuen. Gipuzkoako lehena debozionario bat da. Bernart Etxepare da euskaraz idatzitako lehen liburuaren egilea: Linguae Vasconum Primitiae, Bordelen 1545ean argitaratua.

"Evangeliarioa" da libururik garestiena: 1175ekoa da, 226 orrialde ditu eta 2.712.410.000 pzt. balio du, hau da, orri bakoitzak 12 milioi baino gehiago. Estatu alemaniarrena da. Iaz Bergaran libururik salduenak "Kutsidazu bidea, Ixabel" eta "El mundo de Sofia" izan ziren.

**ITXASMENDI**  
ERREKADISTA  
Barrenkale, 36  
BERGARA  
☎ 76 50 64 / 76 13 61  
EGUNERO DONOSTIA, BERGARA, ARRASATE, ARETXABAETA, ESKORITATZA eta OÑATIRA.

**IGARZA**  
MERZERIA  
LENZERIA  
Irala, 5 ☎ 76 24 88 BERGARA

**IZADI** PILI GISASOLA  
Zurradero, 2  
behea.  
☎ 76 58 83  
**Santiveri**  
Osasun eta Dietetikan  
espezializatutako zentrua



# COMERCIAL BRUNET

Ozaeta, 11-13 behea • Telefonoa eta faxa: 76 31 52 • BERGARA

SALMENTA ETA  
KONPONKETA



MOTOKULTOREA

MOTUZERRAK



BASO ETA LORETAGIETARAKO  
MAKINERIA ALOKAIRUA



DESBROZADORAK



HUSQVARNAK eta COMERCIAL BRUNETek  
labegaraietarroi jai zoriontsuak opa dizkizute.

# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiarene unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.


*Profesionalenez osatutako taldea emakumearen zerbitzura*

**Doktoreak:**  
CRISTOBAL  
ESTOMBA  
GOMEZ  
MURGIENDO  
OTALORA  
RUIZ




Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

## Udal aurrekontuetan zeri emango zenioke lehentasuna?



**Juan Pedro Eguren**  
46 urte, langilea

Hasteko, herria orokorrean hobetuko nuke. Bestela konkretuki ez zait ezer bururatzten. Azken batean, guztion bizimodua hobetzen ahalegindu.



**Jose Iñarra**  
64 urte, jubilatua

Hainbeste gauza daude... Niretako onena kaleak txukuntzea izango litzateke... Hortik aurrera, berriz, gauza asko daude.



**Aintzane Mendizabal**  
21 urte, ikaslea

Ez dakit, ez zait ezer bururatzten. Kulturako taldeei laguntzeari beharbada... Geu ere hor gaude eta zerbait tokatzen zaigun...



**Ane Agirreolea**  
31 urte, etxekoandrea

Ez dakit ba... Herriko gauzak egin, kaleak garbitu, gazteendako zerbait antolatu... Gauza asko egin daitezke.



**Ana Garcia**  
58 urte, langilea

Lehenbizi gazteendako lana sortzeko iharduerak egitea beharrezkoa ikusten dut. Hortik aurrera gauza asko daude.



**Pedro Luque**  
60 urte, jubilatua

Konpontzeke dauden gauza asko konpontzea falta dela uste dut. Horiek berriztea beharrezkoa ikusten dut.

UDARAKO

MENU

GOXOAK

# SUKALDARITZA

IKASTAROA

**IRAKASLEA:** Alberto Elortza (Zelai-Zabal jatetxeko sukaldaria). **NOIZ:** Maiatzaren

8tik ekainaren 19ra arte, asteazkenetan 6.30etatik 8.30etara. **PREZIOA:**


Bazkideak: 1.500 pzta; Bazkide ez direnak: 2.000 pzta. **EPEA:** Maiatzaren

6a baino lehen JARDUNen (Masterreka, 13) edo 76 08 19 telefonoan.



Antolatzailea: JARDUN • Laguntzailea: EROSKIKO KONTSUMITZAILEEN ELKARTEA






## Forcem-Forceps

Forcem-eko siglen esanahi zehatza zein den jakin gabe, zer den eta zertarako balio duen oraintxe jakin du euskal hiritarrak. Giza Asegurantzako kotizazioetako zati bat Formakuntza Profesionalerako bideratzen da, langile batek irabazten duen soldata brutoaren %0,7 hain zuzen ere. Baten izenean ordaintzen dena ez da asko baina Giza Asegurantzaren kotizatzeraren derri-gortuta dauden guztien %0,7en batura egiten badugu, milaka milioiko kopuru bat ateratzen zaigu. Zer egiten da diru honekin? Dirudinez, Forcem izeneko erakunde honek, enpresari eta sindikatuen ordezkariak osatzen dutena, milioi horiek banatzen dizkie etengabeko formakuntza profesionalerako subentzio eskabi-deak luzatzen dizkieten enpresa eta erakundeei. Diru asko etorri da bide honetatik Euskal Herrira eta baita, zer esanik ez, Aranzadi ikastolak parte hartu duen zenbait ekintzetara zuzenduta ere.

Normala denez, formakuntza beharra eta banaketarako irizpideak hobeto ezagutzen dira zenbat eta industriatik edo erakundeetatik hurbilago egon. Hau horrela bada, hemengo enpresari elkarteek eta sindikatuek banaketa justuago bat egiteko arrazoiak izan beharko litzukeela pentsatu behar dugu. Garbi dago era berean, banaketako ahalmenaren deszentralizazioak ez duela esan nahi kutxa bakarraren printzipioa hausten denik. Zer dago orduan jokoan? Diru mordo bat eta garbi dagoenez, diru honen banaketa erabiltzeak ematen duen boterea. Sarritan entzun izan dugu Forcem-era diru eske jo aurretik ponteko on batzuk behar direla. Horregatik agian diru horiek euskal iraskunde baten eskuetan uzteko beldur hori. Geure aldetik eskualdatze horren alde egin beharko genuke, nahiz eta jakin Forceps-a baino zerbait gehiago erabili beharko dela helburu hori lortzeko.

Eskabide bat soilik. Egunen batean eskualdatze hau lortzen bada, entxufismoak eta lagunarteko bazkariak bazter ditzala Formakuntzarako Euskal Iraskundeak Forcem-eko eredia ahaztuz.

**Iñazio ARREGI**



## Susmo txarrak

Azkenen egunotan komunikabide guztietan aditu eta irakurtzen ari garena benetan harrigarria da. Telebistak Espainiako futbol profesionalaren irudien eskubideak lortzeko lehia izugarrian sartuta daude. Antena 3 lehendabizi, Canal + geroago eta are bitxiago Mexiko-ko Telebista ere milaka milioi pezeta eskaintzen ari zaie Futbol Profesionaleko taldeei datozen bost urteetan futbol irudiak zuzenean emateko.

Badirudi lehen mailako taldeak ezezik, bigarren mailakoak ere jasoko dutela diru kopuru inportante bat euren aurrekontuak oreka eta indar ditzaten. Ez da harrizkoa, beraz, hainbat talde (Real eta Athletic-a barne) egiten ari direna, hau da, itxaron eta eskaintza guztiak aztertze denbora hartu nahi dutela esatea, ea kate gehiago apuntatzen diren ahalik eta etekin gehien ateratzeko.

Hala eta guztiz ere, futboleko horrenbeste diru sartzeak susmo txarrak ekartzen dizkit burura: "inbertitu" behar duten dirutza hori berreskuratzeko zenbat futbol partidu eman beharko dituzte astean? edo zenbat publizitate iragarki jarri?

Bestalde, taldeek lortu behar duten diruarekin, zer egingo dute? Errezena, agian; Hau da, taldearen historian presidentearen izena goraiatzeko jokariak erosi eta kanteraz ahaztu? Eta azkenik, gutako askorentzat ez dira hain urrin gelditzen frankismo garaian egiten zirenak, gizarte eskaerak edo protestak isilarazteko futbola baitzen botikarik egokiena.

Susmo txar hauek puntu batera eramaten naute: telebistari esker, futbola izenik gabeko talde-jabe baten menpe gelditzen da edo arriskuan behintzat eta, horrela bada, nork ezagutzen di-tu jabe horren helburuak?

Gaur egun jendea isilarazteko erabiltzen den tresna ez da futbola, telebista bera baizik. Beldur diot.

**Miguel Angel ALVAREZ**



# ETXE BERRIA

## ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

# Siaska

## Dena zure haurrarentzako

San Pedro, 10 ☎ 76 10 39

# ZAPELAITZ

## Taberna

Eguneko menuak  
astelehenetik ostiralera

San Lorentz, 25 BERGARA

# Iturkintz Berri

## INSTALAZIOAK: Iturkintza, Berogintza, Gasa

Amillaga, 1 (B Pabiloia)

☎ 76 28 04

BERGARA

■ **Jardunean**

Asteartean *Jardunean* **Jardun Elkarteko** bazkideei hilero banatuko zaien buletina aurkeztu zen Gartzela Zaharrean. **Gorka Elortza** Jarduneko dinamizatzaileak eta **Jone Larrañaga** formazio taldeko arduradunak azaldu zuten, buletina Jarduneko bazkideekin harremanak indartzeko sortu da. Buletinarekin bazkideak informatu eta



formatu nahi dira eta horrez gain bazkideekin komunikazioa ere lortu nahi da, bazkideek elkarteari buruz duten iritzia jakiteko. Buletina momentuz 4 orrialdekoa izango da eta, esan bezala, hilaren azken ostiraleetan bazkide guztiei euren etxera bidaliko zaie. Gaur egun 580 bazkide inguru ditu Jardunek



■ **Kantu ikasleak**

**Musika Eskolako** kantu ikasleen hezkuntza indartzeko joan zen astebukaeran ikastaro berezi bat antolatu zen. **Maria Jesus Ugalde** kantuan titulaturako soprano bergararrarekin 12 ikasle ari dira eta astebukaeran **Isabel Alvarez** sopranoaren eskutik teknika berriak ezagutzeko aukera izan zuten. Isabel Alvarez oso kantari ezaguna da, besteak beste, **Donostiako Orfeoiarekin** edo **Capilla Peñafloredarekin** Europa osoan

abestu baitu. Ikastaroari amaiera emateko audizio bat egin zen igande arratsaldean Zabalotegiko aretoan. Bertan ikasle guztiek hartu zuten parte. Banan-banan abestu ondoren, amaieran guztiek batera beren maila erakutsi zuten, beti ere **Enrike Txurruka** eta **Iñigo Alberdi** pianujoleen laguntzaz. Chapeau!!

**ZUBIAURRE**  
**aroztegia**

Sarrerako eta barrurako atekak, horma armairuak, tarimak, egurrezko eta PVCzko leihoak, era guztietako arotz lanak...

Zubiaurre, 2 ☎ 76 15 14 / 76 35 73

**Garnish**

**Bitxitegia**

San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

**Kabutzia**

**ARRAINDEGIA**

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

■ Argazki rallya


Benito Cantero izan da Mendi Astearen barruan antolatutako argazki rallyko irabazlea. Lehiaketan 10 argazkilarik hartu zuten parte, guztiak bergararrak, eta bigarren eta hirugarren sariak Oihane

Gurrutxaga eta Agustin

Gurrutxagarentzat izan ziren. Sari banaketa pasa den ostiralean egin zen Pol-Poleko aretoan. Argazkilari bakoitzak 5 argazki aurkeztu behar zituen eta agindutako bost gaiak hostoak, haitzak, oinarrastoak, lorak eta zibilizazioaren aztarnak izenburukoak ziren. Benito Canterok 12.000 pezeta argazki materialean eskuratu zituen sari gisa eta Oihanek eta Agustin Gurrutxagak 10.000 eta 8.000 pezetako sariak irabazi zituzten. Argazkian Oihane Gurrutxaga gazteak aurkeztutako lanetako bat.




Zertan dihardute ba?



**Beñardo Kortabarria** 33 urteko kazetari antzuolarrak herri komunikabideei buruzko hitzaldia eman zuen asteartean Madrilgo Euskal Etxean. Beñardo Kortabarria Informazio Zientzietan lizentziatua da Leioako Fakultatean eta dagoeneko urtebete egin du Arrasate Press astekariko zuzendari bezala. Asteartean, Arrasate Press bera eta gainontzeko herri komunikabideen ereduak aztergai izan zituen Beñardok. Bere hitzetan, *"Euskal Etxean ekitaldi asko antolatzen dituzte eta oso interesatuta daude hemengo gauzekin. Esperientzia polita izan da hango euskaldunekin biltzea"*.

■ Pizinetako tabernari berria

Jose Antonio Olabarria bergararrari adjudikatu zaio Igerilekuetako taberna, Gobernu Batzordeak aurkeztutako hiru eskakizunak aztertu ondoren. Beraz, urtebetez, aurtengo maiatzetik 1997ko maitzera bitartean, Olabarria izango da Pizinetako tabernako



arduraduna. Egunotan hainbat hobekuntza lan egin dira tabernan. Garbiketa lanak burutu ondoren, atzo, osteguna, margotze lanak egitekoak ziren taberna puntuan jarri ahal izateko. Datorren asteazkenean, maiatzak 1, taberna berriz zabaltzea espero da.

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

*Tomas Gezalaga*

ANTZUOLA BERGARA

• Zoruen kutxilatatu eta barnizaketa •

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...  
Leihoak, atekak, manparak...

Eska ezazu aurrekontua  
konpromezu barik



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA  
Fabrika: Zigarrola 1, 8. pabiloia ARRASATE  
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

IGARO

✓ Kosmetika eta oparigaiak

✓ Eder gela

✓ Bio Solariuma


Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27

# Jon Ander Garitano

**Txikitatik bizikletan ibilia, 25 urte dituen gazte hau Lokatzako entrenatzaile izatera heldu da. Lan egiten du eta Xamatx dantza-taldeko partaide dugu. Parrandarako astia ere badu.**

AMAIA ALBERDI ETA ELENA FERNANDEZ

- Zein da zure betebeharra lokatzen?
- 13 urte eman ditut bizikletan eta 3 urte entrenatzaile. Jubeniletako talde bat gidatzen dut.
- Zenbat denbora ematen duzu honetan?
- Asteaz zehar gutxi, gehienbat karrerak daudenean, asteburuetan.
- Zergatik hasi zinen txirrindularitzan?
- 8 urterekin hasi nintzen bizikleta gustoko nuelako.
- Larunbateko Donostia-97 klasikari buruz zer?
- Ondo atera zen, oso maila ona zegoen.
- Edizio honetan bapateko arazorik bai?
- Ez, ondo antolatuta zegoen.
- Txirrindulari gustokoena?
- Jalabert.
- Eta Indurain eta Olanoren artean?
- Indurain.



*“Puzzleak egitea gustoko dut, oraingoak 5.000 pieza ditu. Bizikletan asteaz behin ibiltzen naiz. Bergaran neska asko eta politik daude. Goku eta Mr. Bean ikustea gustoko dut”*

- Gertaera bitxirik?
- Neska txirrindulari bat dutxetan sartu zitzaigun gurekin dutxatzera. Harritu egin gintuen.
- Xamatzen ere aritzen zara.
- Bai. Igandean nagusien Euskal Jaira joateko asmoa dut.
- Noiztik Xamatzen?
- Txikitatik. Surrarekin hasi nintzen, gero laga egin nuen eta iaz berriz hasi nintzen mutil falta zela eta.
- Zein dantza duzu gustokoen?
- Banakoa.
- Abarkak maiz askatzen zaizkizu?
- Niri ez baina askotan gertatzen da.
- Hobbyrik?
- Puzzleak. Azkenak 5.000 pieza ditu.
- Gaupaseroa al zara?
- Ni, ez !! (barreak).
- Kalimotxoa ala garagardoa?
- Garagardoa, lehen kalimotxoa.
- Horoskopoa irakurtzen al duzu?
- Bai
- Kolore bat?
- Urdina.
- Marrazki bizidunak gustoko dituzu?
- Bai, Goku.
- Bergarako gauza on bat?
- Neska pilo bat eta politik daudela.
- Eta txar bat?
- Asteburuetan goizeko 3retan ez dagoela zer eginik.



**ARRASTRO**  
**Birziklaia**



Erabilitako objetuen berreskurapena:

altzariak, saneamendua, etxerako tresneria, aintzinakoak.

Altzari bilketa • Zurgintza lanak • Beira eta ispiluak.

**BIGARREN ESKUKO ALTZARIAK PREZIO ONEAN!!**

**Erabiltzen ez dituzun altzari edo tresneriarik badaukazu dei egin 78 32 88 telefonora eta geuk batuko ditugu**

**Gure ordutegia hurrengoa da:**

Asteleheneetik ostiralera, arratsaldeko 4etatik 8etara. Larunbatetan, goizeko 11etatik ordu 2etara

Kalezaharra 54 - OÑATI - Tfnoa: 78 32 88

**ARREGUI, E.M.**



**ARROZTEGIA**

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
  - ATEAK, etab.
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
  - PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73

Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

**ETXEBIZITZA**

**Pisua** salgai. 80 m2 eta 6 m2ko terraza. ☎ 76 03 75.

**Etxea** alokatzen da Alcoceberren, Castellonen. Amueblatuta. ☎ 76 59 05.

**Pisua** salgai. 90 m2 eta terraza. ☎ 76 31 57 (gauzez).

**Pisua** salgai Bidekurutzetan. ☎ 76 43 22/76 56 07.

**Pisua** salgai San Antonion. Amueblatuta. ☎ 76 05 99.

**Etxea** salgai Katabian. Amueblatuta. ☎ 76 44 55.

**Pisua** salgai Maduran. ☎ 76 45 03.

**Garajea** salgai Ibargarain. 22 m2. ☎ 76 44 25.

**Laredon** pisua alokatzen da uztailen. ☎ 79 52 80.

**Garajea** (2 plaza) salgai Aranerrekan. ☎ 76 06 96.

**Pisua** salgai herri erdian. ☎ 76 39 64 (21.00-23.00).

**Pisua** salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 44 84.

**Pisua** alokatzen da Zubietan. ☎ 76 47 28 (gauzez).

**Pisua** alokairuan hartuko nuke. ☎ 76 47 71.

**Garajea** salgai Santa Marinan. ☎ 76 29 36.

**DENETARIK**

**Kanpin denda** familiarra salgai. ☎ 76 37 96.

**Kawasaki** GPZ 500 motorra salgai. ☎ 76 33 46.

**Nikon** 70210 "D" objetiboa salgai. B + W filtera, parasol originala. Erabili gabe. ☎ 76 52 31 (Jesus, gauzez).

**Golf**-eko Wilson makilak salgai. ☎ 76 10 93/32 15 89.

**Suzuki** GSx 600F motorra salgai. ☎ 76 20 26 (gauzez).

**Urrezko pultsera** bat aurkitu dut Matxiategi kalean. ☎ 76 41 28.

**Erlojua** (Casio kalkuladoraduna) galdu nuen Boni Laskurainen. ☎ 76 38 71.

**Ezkontza eraztun** bat agertu da Eroskin. Galdu duena bertatik pasatzeko.

**Ford Sierra** kotxea (SS-AD) salgai. ☎ 76 33 10.

**Boxer** txakurkumak salgai. ☎ 76 28 68 (21.00-23.00).

**Ordenadore** bat salgai. ☎ 76 27 59.

**Lancia** Delta GTI kotxea salgai. ☎ 76 59 40 (Jorge).

**Montesa** H7 Enduro motorra (250 cm3) salgai. 100.000 pta. ☎ 76 31 40.

**Karabana** (5 pertsonentzat) salgai. ☎ 79 18 60.

**Comodore** ordenagailua (Amiga) salgai. ☎ 76 56 13.

2. eskuko **kotxe kapota** erosiko nuke. ☎ 76 46 54.

**Gimnasia** egiteko motorizatutako 6 mahai salgai. Egoera onean ☎ 76 13 46.

**LANA**

**OHO** eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Ingeles** klaseak ematen dira. ☎ 76 40 89 (Gemma).

**Errenta** aitorten egiten ditut. ☎ 76 34 95 (Ander).

**Ingeles** klaseak ematen ditut. ☎ 76 06 56 (Irene).

**Klase** partikularrak ematen dira. ☎ 76 04 65.

**Klase** partikularrak ematen dira. ☎ 76 33 26.

**Haurrak** zainduko nituzke. ☎ 76 18 75.

**Etxeko** lanak egingo nituzke. ☎ 76 38 00.

**Neska** euskalduna behar da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. ☎ 76 15 12.

**Euskara** klaseak hartuko nituzke, 3retatik 5etara. ☎ 76 58 73.

**Neska** batek haurrak edo zaharrak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 21 96 (Merche).

**BBB**, UBI eta Unibertsitate mailako klase partikularrak. ☎ 76 35 37.

**Haurrak** zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. Esperientzia. ☎ 76 61 17.

**Ordenadorez** lanak pasatzen dira. ☎ 76 27 59.

**Zaharrak** zainduko nituzke. ☎ 76 11 11.

**POL-POL**  
Taberna  
☎ 76 07 78




*Cristina Garcíandia Mujika*

**DERMATOLOGIA**  
**BENEREOLOGIA**  
**MEDIKUNTZA KIRURJIKOA**

San Martin Osasundegia  
Ramón María Lili, 2 (Ate nagusia)  
Telefonoa: 76 59 39

# BONOFOTOA



## Jabier Berraondo

**Jabier Berraondok** jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galdera asmatu eta ondorengo zozketan bere txartela atera delako. Argazkian agertzen zen elizaren izena, zein auzotan dagoen eta noiz ospatzen den bere eguna galdetzen genizuen eta erantzun zuzena, **San Prudentzio eliza, Elorregi auzoa eta apirilaren 28an** zen. Beraz, oraingoan 10.000 pezetak **Jabier Berraondori** eman dizkiogu. Zorionak!!

**Bergarako zein kaletan aurkitu ditzakegu bi buzoi hauek, bata Errepublika garaikoa (ezkerrekoa) eta bestea gaur egungoa (eskumakoa)?**

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

Saria  
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta  
ekarri astebete baino lehen

**BERRIGARA**  
Errotalde Jauregia Bergara

## 1. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. ERROTAGAIN	43	17	81	29
2. BAR CANALEJAS	40	17	58	21
3. MONGATXURRAK	34	17	75	32
4. MADURA INDUSTRIAS GOL	32	17	58	40
5. OGIZUN	26	17	53	55
6. KABIA	22	16	40	46
7. ARLOTEAK	21	16	41	50
8. BILDURBAREK OPEL/LAM	19	17	45	54
9. ORTZI	16	16	26	47
10. UFALA	7	17	39	82
11. OZAETA	4	17	40	88
12. BERGATRANS	0	16	0	0

## 2. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. JAUJA OH ZEREZOS	44	17	112	51
2. A ZE FLAXA	44	19	86	50
3. PAGOMENDI	34	18	79	54
4. ARTUSAMAK	31	18	58	42
5. UVE BIKOITZA	28	18	51	60
6. NAIKARI HOOLIGANS	22	17	58	63
7. KAYAK OS JARDINEIROS	19	18	74	78
8. HALTZARI	18	18	41	76
9. AUTOBEREZI	18	18	60	66
10. ERI	17	19	57	74
11. ETXAGI	16	19	82	113
12. INDARGORRI	15	17	25	41


## 3. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. SOROPOTROAK	43	18	95	51
2. KIROLZALEAK	43	20	93	55
3. EZINLEIKE	36	19	86	53
4. AMOZKIBAR	33	18	51	34
5. LA JUVE	32	19	60	59
6. NEKROFILIKOS	27	19	75	78
7. MOSKIS	26	19	54	74
8. CONSTRUCCIONES BERGARA	25	19	58	66
9. EH BITERRAK	20	19	39	69
10. IGANDEKOAK	16	18	48	75
11. SHAKTALE	11	19	38	70
12. ARI ARI	10	19	66	86

## 4. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. FAC	43	18	90	38
2. GUADALEST	39	18	72	34
3. TXIPIRON	35	17	63	40
4. PJS	34	17	84	47
5. PATXARAN TEAM	29	18	66	54
6. OSINTXU	27	18	66	57
7. MATXAKATEGI	24	17	68	69
8. LABEGARAIETA	18	18	48	96
9. PATA NEGRA	17	18	51	100
10. ALDOKA MALDOKA	12	18	46	68
11. XURRUPAK	4	17	33	101

## PROTAGONISTAK



**XABIER OLABARRIA**

**Txipironekoa**

*"Arrasaten baloi onekin jokatzen dira partidua"*

### - Zer moduz orain arte?

- Ondo, lehen postuetan gaude.

- **Antolatzaileek txapelketako jokalaria onenaren saria eman dizute...**

- Hori oso subjektiboa da. Partiduetan ez naiz haserretzen eta arbitroak gauzak gaizki egin arren ez dut protestatzen, agian horregatik emango zidaten, baina txapelketan badira horrelako beste jokalariz batzuk.

### - Arrasateko txapelketan ere jokatzen duzu, ezta?

- Bai, aurtan Pepelus taldearekin dihardut eta ez gara bigarren fasera gutxigatik sailkatu.

### - Zein txapelketa da hobea?

- Arrasatekoa, han baloi onekin jokatzen dira partidu guztiak, Bergarakoan, berriz, baloiak oso gaizki daude. Arrasaten partidua herri erdian jokatzen dira eta ikusle gehiago joaten da partiduetara.

## TALDEAK



**Txipiron** taldea Fernando Otaño, Aurelio Morillas, Jesus Azkonaga, Toño Retes, Alberto Herran, Jesus Mari Azula, Xabier Olabarria, Julio Etxeberria, Jabier Ros, Juanjo Lopez, Manu Gainza eta Jokin Ugartek osatzen dute. Txapelketako talderik beteroenonetakoa da eta Otaño eta Olabarriak hasieratik jarraitzen dute. 4. mailan daude eta bertan gustora jokatzen dela adierazi digute, "ez baita sarrera gogorrik izaten". Halere, mailaz igotzeko helburua dute eta horretan dabilta, azken jardunaldian 3. postuan baitzeuden.

## EMAITZAK

### 1. MAILA

BILDURBAREK OPEL/LAM-KABIA	7 - 6
ARLOTEAK-MONGATXURRA	3 - 2
ERROTAGAIN-ORTZI	4 - 1
OZAETA-MADURA INDUSTRIAS GOL	4 - 9
BAR CANALEJAS-OGIZUN	3 - 1

### 2. MAILA

ERI-A ZE FLAXA	5 - 9
HALTZARI-UVE BIKOITZA	0 - 6
PAGOMENDI-NAIKARI HOOLIGANS	6 - 1
AUTOBEREZI-ETXAGI	11 - 4

### 3. MAILA

EZINLEIKE-MOSKIS	5 - 3
ARI ARI-KIROLZALEAK	1 - 4
EH BITERRAK-IGANDEKOAK	3 - 2
SHAKTALE-CONSTRUCCIONES BERGARA	2 - 3

### 4. MAILA

LABEGARAIETA-FAC	2 - 6
OSINTXU-MATXAKATEGI	4 - 5
PATA NEGRA-PJS	5 - 10
ALDOKA MALDOKA-TXIPIRON	1 - 2
PATXARAN TEAM-GUADALEST	3 - 5

## PARTIDUAK

### LARUNBATEAN BARRUAN

**09:00:** Shaktale-Igandekoak • Bildurbarek  
**10:00:** Bildurbarek-Ogizun • Shaktale

### IGANDEAN BARRUAN

**09:00:** Autoberezi-Naikari H. • Artusamak  
**10:00:** Haltzari-Artusamak • Naikari H.  
**11:00:** Ortzi-Madura • Haltzari  
**12:00:** Etxagi-Pagomendi • Ortzi  
**13:00:** EH Biterrak-Ari Ari • Pagomendi  
**16:00:** Soropotroak-Amozkibar • Nekrofilikos  
**17:00:** Nekrofilikos-Moskis • Soropotroak  
**18:00:** La Juve-C. Bergara • Moskis  
**19:00:** Kayak OJ-Indargorri • C. Bergara  
**20:00:** Xurruapak-Guadalest • Kayak OJ

### ASTEAZKENEAN BARRUAN

**09:00:** Autoberezi-Jauja OH Zerezos • Haltzari  
**10:00:** Haltzari-A Ze Flaxa • Jauja OH Z.  
**11:00:** Uve Bikoitza-Naikari H. • A Ze Flaxa  
**12:00:** Eri-Indargorri • Uve Bikoitza  
**13:00:** Kayak OJ-Pagomendi • Eri  
**16:00:** Bar Canalejas-Arloteak • Mongatxurra  
**17:00:** Errotagain-Mongatxurra • Arroteak  
**18:00:** Kabia-Ortzi • Errotagain  
**19:00:** Ozaeta-Ufala • Ortzi

## TXINPARTAK

## BKEko pelotariak kanporatuak

BKEko pelotariak Gipuzkoako Herri Arteko Txapelketatik kanpo geratu ziren joan zen ostiralean Soralezaren aurka 2 eta 1 galdu ondoren. Bergararrek kadete eta jubenetan galdu egin zuten eta nagusietan irabazi.

## Labegaraietako I. Herri Krossa

Larunbatean, 18:00etan Labegaraietako I. Herri Krossa jokatu da. Gizonezkoek 6 kilometro egin beharko dituzte eta emakumezkoek 4 kilometro. Izen-ematea arratsaldeko 5ak baino lehen Jai Batzordearen lokalean egin beharko da. Bestalde, igandean goizeko 10etan hasita Labegaraietako XXXIV. Txirrindularitza Lasterketa jokatu da 2. urteko kadeteentzat.

## Arraten garaile

Aitor Zabaletak (2:31:57) Arrateko kotxe igoera irabazi zuen igandean. Andres Vilariño sailkatu zen bigarren 5 segundura.

## Mikel Roldan atxabaltarra Donostia-97 klasikako irabazlea

Fagor taldeko Mikel Roldan atxabaltarra izan zen joan zen larunbatean jokaturako Donostia-97 klasikako irabazlea. Bigarren Josu Zabalbeaskoa bizkaitarra izan zen 1'44"ra eta hirugarren, Miguel Martinez galiziarra 2'55"ra. Roldanek mendiko eta tartekako helmugen sariak ere irabazi zituen.

Begarako 12 txirrindularik hartu zuten parte eta inork ez zuen lasterketa bukatu. Azken lasterketetan bikain aritu den Jon Unamunori, Angiozarrera igotzen gelditzeko esan zioten entrenatzaileek. Mutila nahiko jota omen zihoan aurreko egunetan gaisorik egon baita.



Bi euskaldun eta galiziar bat larunbateko podiumean.

Lasterketa hasi baino lehen, Andaluziako selekzioko entrenatzaileari plaka bana eman zioten Gipuzkoako Elkargoak eta Lokatza Txirrindulari

Taldeak joan zen astearen lasterketa baino pare bat egun lehenago auto batek selekzio horretako txirrindulari bat harrapatu eta hil egin zuelako.



Bigarren fasean buru-belarri sartuta daude Pala txapelketan.

## Pala txapelketa

Pala txapelketako iazko irabazleek, Azkarate eta Zabalo antzularrek, aurten ere irabazteko aukera haundia dute. Joan zen zapatuan 35 eta 13 irabazi zieten Etxaniz eta Laskuraini. Alberdi eta Gallastegik, berriz, 35 eta 29 irabazi zieten Acedo anaiei, eta Agirrebeñak eta Uberak 35 eta 30 Vilariño eta Bengoari. Zapatuan ordubietan beste jardunaldi bat jokatu da Osintxuko frontoian.



# Agirrebeña JATETXEA

Labegaraietako jaixetan ondo pasau!!

Ibarra kalea, 2 • Tfnoa: 76 20 38 • BERGARA



## KARTELDEGIA

## FUTBOLA

## ◆ Bergara-Arrasate

Lehen erregionala.  
Larunbata, 17:15. Ipintza.

## ◆ Bergara-Pasajes

2. mailako jubenilak.  
Larunbata, 15:30. Ipintza.

## ◆ Bergara-Koskas

Lehen mailako infantilak.  
Igandea, 10:00. Ipintza.

## ◆ Bergara-Intxaurren

Emakumezkoak.  
Igandea, 11:30. Ipintza.

## ESKUBALOIA

## ◆ Bergara-Arrate

Kadete mutilak.  
Larunbata, 16:00.  
Labegarieta kiroldegia.

## ◆ Bergara-Urola

Jubenil neskek.  
Larunbata, 17:15.  
Labegarieta kiroldegia.

## ◆ Bergara-Elgoibar

Jubenil mutilak.  
Larunbata, 18:30.  
Labegarieta kiroldegia.

## ◆ Bergara-Elgoibar

Kadete neskek.  
Larunbata, 19:45.  
Labegarieta kiroldegia.

## SASKIBALOIA

## ◆ Bergara-Zarautz

Jubenil neskek.  
Larunbata, 12:15.  
Labegarieta kiroldegia.

## PALA TXAPELKETA

Pala Txapelketako bigarren faseko partiduak.  
Larunbata, 14:00.  
Osintxuko frontoia.

# Jose Ramon Agirre

## Gailurrez gailur mendia gozatuz

**Jose Ramon Agirre "Marrron" ataundarra Bergaran izan zen diapositiba emanaldi bat eskeintzen. Mendizale honek kontinente guztietako mendirik altuenak igo ditu, tartean Everest, eta espedizioetan egindako diapositibekin ateratzen du bizitza arrera.**

**- Mendizalea ala abenturazalea?**

- Abenturazale hitza ez zait gustatzen, natura eta mendia gustatzen zaizkit eta zaletasun horiei esker beste herri edo kulturak ezagutzeko aukera izan dut. Halere, bidaien ardatz nagusia mendia da.

**- Zuk egindako gauzarik aipagarriena kontinente guztietako mendirik altuenak igo izana da..**

- Hori oso historia komertziala izan da, badiurdi izugarriko gauza dela, baina mendi aldetik ez du zailtasun handiegirik. Komertzialki eman zaion "boom" hori larregikoa da, egindakoari ez diot ezer kentzen, baina ez diot ematen eman zaion garrantzia hori.

**- Zela egiten duzu diaporama bat?**

- Aurretik gidoi bat egiten dut eta horren arabera argazkiak ateratzen joaten naiz. Argazki asko atera behar dira, 1.000 inguru, eta hona etorri ondoren aukeraketa, nahasketak, musika aukeratu, zuzenketak, soinu efektuak eta hori guztia egiten dut. Denera 2 hilabe-

te ematen ditut horretan.

**- Zein izan da gehien harritu zaituen tokiak?**

- Toki guztiek dute bere xarma berezia eta guztiek dute aipatzeko zer-bait. Antartida adibidez, dimentsio ezberdina da eta oso zaila da asimilatzea duen zabaltasuna eta klimaren gogortasuna. Bertakoekiko harreman bereziena Papua Berria izan da eta mendiari dagokionean gogortasuna alde guztietatik aurkitu genuen Everesten. Han topatu ginen espedizio komertzial pila batekin, mendia zaintzen ez duena, taldekideekiko harre-


man kaxkarra duena eta pixka bat etsita aurkitu ginen.

**- Eta sekula igo duzun mendirik zailena?**

- Everest bera, 8.000 metrotik gora asko kostatzen da ibiltzea eta fisiko-ki esfortzu handia eskatzen du.

**- Zein izan zen igo zenuen 2.000 metroko lehen mendia?**

- Orhi izan zela uste dut eta Piriniotako mendietara oraindik joaten naiz. Mendien gozatu egin behar da eta ez da bakarrik mendi zailei begira egon behar. Garrantzitsuena mendian disfrutatzea da.



"Everesten espedizio komertzial askok mendia ez du zaintzen".

## "Antartidako klimaren gogortasuna asimilatzea oso neketsua da"

# Mariaren Lagundiko neskatilak

**U**niforme eta guzti agertzen diren neskatila hauek Mariaren Lagundiko 5. mailan egongo ziren argazkia atera zenean. Gaur egun 33 urte inguru dituzte eta datorren maiatzaren 11n 1963. urtean jaiotako guztiekin bazkaria egingo dute. Ordurako mutilak ere gonbidatuta daude...

Argazkian agertzen direnen izenak honako hauek dituzte:

### Goiko ilaran:

Nerea Agirrezabal, Lurdes Cid, Agurtzane Jauregi, Edurne Barrenexea-Arando, Ana Alonso, Zuriñe Agirrezabalaga, Monse Aranburu, Mari Carmen Aranburu eta Beatriz Elkorobereibar.

### Bigarreanean:

Elisabeth Irazabalbeitia, Tere Garamendi, Mila Agi-

rezabal, Elisabeth Dulanto, Olatz Arregi, Judith Agirre, Irene Gallastegi eta Mari Carmen Igarza.

**Hirugarren ilaran eserita:** Amaia Aranzabal, Yolanda Miner, Itziar Juldain, bi ahizpa (ezezagunak) Pili Ursua, Matxalen Aspiazu, Begoña Urzelai eta Maitxe Errasti.

**Aurrean:** Ane Goenaga, Itxaso Azkarate, Arantza Etxeberria, Loli Doblas, Arantzasu Aranes, Karmela Gantxegi eta Maria del Mar Alvarez.



## ZUBIETA

### elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA  
ERA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK

Kruz Gallastegi, 2 behea  
☎ 76 23 48



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

## zumelaga

### JATETXEA

IGANDETAN  
ZABALIK!!

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!

AGENTZIA:  
**J. ELKORO**

Ibargarai, 2 behea  
Tfnoa: 76 57 85  
BERGARA

VITA

CAUDAL

ZURICH TALDEA ASEGURUAK

ZURICH



UNIBER

HISPANIA



# LILURA

## Edertze Institutua




# L I P O R E D U Y <sup>®</sup>



Zelulitisa dagoela nabarmen.

Tratamendua egin ondoren zeulitistik ez.



**L-CARNITINA**  
GORPUTZEKO  
ZELULITISAREN  
KONTRAKO  
BIOBITAMINA  
ERAGINKORRA

# INTÉGRÉE

EDERTASUNAREN ETA ONGIZATEAREN ZIENTZIA

**Bete txartela,  
moztu, eta ekarri  
lehenbailehen  
LILURA Edertze  
Institutura.**

### TXARTELA

- TERMOESTERarekin azterketa doan.
- LIPOREDUY (4.600 pzta.) erosteagatik 1.800 pzta.ko deskontu txartela.

Izen-abizenak: .....

Helbidea: .....

Bezero berria: BAI  EZ

# HALTZARI

## FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Bolu 24 behea BERGARA (Gipuzkoa). Telefonoa eta faxa: (943) 76 30 57



FILA modeloa



NALIA modeloa



ONDA modeloa



OXFORD modeloa



ACQUA modeloa



SAVOY modeloa



**6** URTEKO  
GARANTIA

# FAGOR



Sukaldeko altzariak

## Sukalde zoragarriak!